

YULI VARGAS

Deskribapena: Kike oinez agertzen da Eskoriatzako kaleetan zehar eta Yuli Vargas-ekin topo egiten du:

Kike: “Aupa Yuli!”

Yuli: “Kaixo Kike!”

Deskribapena: Elkar agurtzen dira muxu emanaz.

Kike: “Kaixo, zer moduz?”

Yuli: “Ondo!”

Kike: “Esaidazu Yuli, ze egiten du kubatar batek, hemen Eskoriatzan?”

Yuli: “Bueno Eskoriatzan, lehenengo aldiz joan nintzen Aretxabaletara, ze han neukan lehengusin bat eta beregana jun nintzen. Gero hasi nintzen lan itten, hemen hurbil taberna batian eta han ezagutu nuen nire senarra. Eta Eskoriatzara etorri nintzen bizitzen!”

Kike: “Ah! Begira ze ondo! Ta zu nongoa zara, berez?”

Yuli: “Ni, Olingoa, hori dago Santiago de Cubaren ondoan.”

Kike: “Eta zuk bazenekien euskera existitzen zenik?”

Yuli (barrez): “Ez nik ideiarik pez. Heldu nintzarian arraro itten jaten entzutea..., nik pentsatzen nauen erderaz ez nekiela. Ze ibiltzen nintzen adiz-adiz entzuten a ver ulertzen nauen zeozer baina ez. Baina bueno, gero animatu nintzen lagunekin eta hasi nintzen ikasten Aretxabaletako euskaltegixan.”

Kike: “Eta ze prozesu jarraitu duzu euskera horren ongi ikasteko?”

Yuli: “Hasieran euskera batuaz hasi nintzen, euskaltegian Aretxabaletan hasi nintzen ikasten, ibili nintzen lau urte eta orain, nire seme-alabekin praktikatzen apurtxo bat ba, euskalkia. Baina ikasi in biot oaindikan gehixago, gero eta gehixago.”

Kike: “Baina oso oso ondo itten duzu eta prozesu horretan zerk lagundu dizu gehien eta non izan dituzu zailtasunik handienak?”

Yuli: “Hasieran zaila izan zan, ze ez da erreza euskera, ez da erreza eta hemen jendia itten... beti hasten dozunian ikasten euskeraz ta hasten dozunian nahi dozu euskeraz egin baina zelan trabatu itten zara ba, bestiek hasten dire erderaz eta ya esta, ba akabo. Eta ez daukagu aukera haundirik praktikatzeko. Horregatik orain, umiekin aprobeztatzen dot e, praktikatzeko hobeto ta...”

Kike: “Tabernetan ere aritu zara lanean eta hor zer moduz?”

Yuli: “Juten nintzenian taberna eta tabernara etortzen ziren bezeroei esaten nienian “eskerrik asko” edo “agur” edo esaldi batzuk, nik ikusten nuenian haien aurpegia “agradecimiento”, ez naiz gogoratzen zelan esaten den”

Kike: “eskertza”

Yuli: “eskertza horrekin, horrek animoa ematen zidan eta jarraitzeko gogua.”